



Haur eta gazteei zuzendutako aisialdiko jarduerari aplikatu beharreko jarraibideak.

Jarduerak antolatzeko jarraibideek COVID-19aren prebentzioari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakora egokitu behar dira; izan ere, protokolo hau berrikusteko unean, funtsean, arau hauek bete behar dira:

- 21/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 9koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, geldiarazte- eta koordinazioko presazko neurriei buruzkoa.
- 926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25ekoa, SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzeko duena.
- 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan prebentzio-neurri espezifikoak ezartzen dituen eta SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Gainera, garrantzitsua da kontuan hartzea Osasun Publikoaren gomendioak, COVID-19aren transmisioa minimizatu eta kontrolatzeko. Sailaren webgunean aurki daitezke:

www.euskadi.eus/koronabirusa/

Webgune horrek COVID-19ari buruzko beste protokolo, araudi eta informazio batzuk ditu, bai eta gaixotasunaren transmisioa prebenitzeko neurriei buruzko herritarrentzako informaziotik deskarga daitekeen materiala ere.

Oharrak eta gomendioak

Osasun-alarmako egoera dela eta, honako ohar eta gomendio hauek egiten dira haur eta gazteei zuzendutako aisialdiko jardueretarako aurkeztutako jarraibideei buruz:

- Jarduerak gehienez sei lagunekin egin ahal izango dira, begiraleak barne, eta talde egonkorak mantentzen ahaleginduko da.
- Ahal den guztietan, jarduera horiek aire zabalean egiten saiatuko dira.
- Jarduera espazio itxi batean egitea ezinbestekoa bada, gehienez 6 pertsonako taldeetan egin beharko da espazio bakoitzean, eta ezingo da espazio horren edukieraren % 50 baino handiagoa izan.
- Jardueran parte hartzen duten pertsonak udalerrri berean edo jarduera egiten den tokiaren mugakide den udalerrri batean bizi beharko dute.
- Gaua igarotzea eskatzen duen jarduera bat proposatuz gero (nahitaez bizi den udalerrri edo mugakide den udalerrri berean), gogorarazi beharko da zirkulazio-askatasunaren muga 23:00etatik 06:00etara bitartean dagoela.
- Maskara uneoro erabili behar dute 6 urtetik gorako pertsonak, ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikuluan jasotako kasuetan izan ezik (21/2020 Errege Lege Dekretua, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, geldiarazte- eta

koordinazioko- presazko neurriei buruzkoa).

Jangeletara joanez gero, janariak edo edariak hartzen diren unean bakarrik kenduko da maskara.

- Instalazioak garbitzeko eta aireztatzeko neurriak zorrotz beharko dira, materialak edo tresnak ez partekatzeaz gain.

OHARRA: kontuan izan behar da jarduerak egiteko unean dagoen egoera epidemiologikoak jarduerak egitea baldintzatu dezakeela, bai eta beharrezkoak diren prebentzio-neurriak moldatu ere.

Gasteizen, 2020ko azaroaren 4an



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA
GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y
POLÍTICAS SOCIALES

Agurtzane Llano Cuadrado
Gazteria zuzendaria